



Usurbilgo Udala

GZ.42/2021-0026
2021GDEA0001

DIRULAGUNTZEN BATZORDE OROKORRAREN

EBAZPEN - PROPOSAMENA

2021. URTEAN GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN EGITASMOAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZA KOPURUAK ONARTZEA

Usurbilgo Udalak 2005eko ekainaren 17an egindako Udalbatzan Dirulaguntzak Arautzeko Ordenantza onartu zen. Ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2005eko abuztuaren 18an, behin betiko izaerarekin.

Ordenantza honen 1. atalean Norgehiagoka Erregimeneko dirulaguntzen prozedura zehazten da Usurbilgo Udalak dirulaguntzak emateko duen bideetako bat bezala.

2021eko apirilaren 7an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2021. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko dirulaguntzen oinarriak argitaratu ziren. Eskaerak aurkezteko hogeiei egun balioduneko epea eman zen, 2021ko maiatzaren 5a izanik eskaerak aurkezteko azken eguna.

Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, 14 eskaera aurkeztu dira.

Eskaerak aztertu ondoren 12 elkartek ez dute zuzen aurkeztu. Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen oinarrietan zehazten den moduan, interesatuari hamar eguneko epea eman zaio falta zen dokumentazioa aurkezteko.

Aipatutako taldeak eskatutako dokumentazioa epe barruan aurkeztu dute.

Teknikariaren txostena kontutan izanda, hurrengo Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatiboan, 2021. urtean gizarte zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko dirulaguntzen banaketa proposamenaren berri emango da.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2020-01-22).
- 2021ean Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak garatzeko dirulaguntza oinarriak (GAO, 2021-04-07)



Usurbilgo Udala

GZ.42/2021-0026
2021GDEA0001

EBAZPEN - PROPOSAMENA

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak **EBAZPEN-PROPOSAMEN** hau luzatzen dio Alkate-Lehendakariari:

LEHENENGOA: 2021. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko dirulaguntza kopuru hauek onartzea:

1. AGIPASE (Krisi egoeran dauden Gipuzkoako familiei laguntzeko elkarte).....	797,10 €
2. AECC GIPUZKOA (Minbiziaren aurkako elkarte).....	584,54 €
3. AGI (Gipuzkoako Ikusmen Urria dutenen elkarte)	1195,65 €
4. AGIAC (Gipuzkoako antikoagulatu elkarte)	690,82 €
5. AGIFES (Buru eritasuna duten pertsonen familien elkarte).....	713,39 €
6. ALCER (Giltzurruneko gaixotasuna duten pertsonen Gipuzkoako elkarte)..	713,39 €
7. ASPACE GIPUZKOA (Garun paralisia duten pertsoneri laguntzeko elkarte).....	903,38 €
8. ATECE GIPUZKOA (Traumatismo Kraneo-enzefalikoa eta burmuineko kaltea duten pertsonen Gipuzkoako elkarte).....	637,68 €
9. ATZEGI (Adimen urritasuna duten eta bere familien bizi kalitatea hobetzeko elkarte).....	1355,07 €
10. GAUTENA (Gipuzkoako pertsona autisten gurasoen elkarte).....	1000,00 €
11. GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA	498,98 €
12. IZAN FUNDAZIOA	1089,37 €
13. ORTZADAR ELKARTEA (Adimen Limitedun Pertsonen Aldeko Gipuzkoako Elkarte).....	930,03 €
14. PAUSOKA (Behar bereziak behar dituzten haurren gurasoen elkarte).....	876,81 €

BIGARRENA: Dirulaguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da dirulaguntzarik emango.

HIRUGARRENA: Dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira:
1.8000.481.231.03.02.2021 (A 71-2021)



Usurbilgo Udala

GZ.42/2021-0026
2021GDEA0001

LAUGARRENA: Ebazpen proposamena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta interesatuak alegazioak aurkezteko 10 eguneko epea izango du GAOn iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

BOSGARRENA: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

SEIGARRENA: Aipatutako epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, ebazpen-proposamen hauek finkoak izatea.

Usurbilen, 2021eko uztailaren 29an.

Batzordeko idazkaria
Garazi Etxeberria San Miguel